

**PRACTICUMAREN ERAGINA GIZARTE
LANGINTZAKO HEZIKETAN:
GASTEIZKO ESKOLAREN KASUA 1964-2009**

Tesiaren egilea: Ainhoa Berasaluze Correa

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Soziologia Saila

Tesi-zuzendaria: Julen Zabalo Bilbao

Tesiaren laburpena:

Diziplina eta lanbide guztietan, heziketa edo kideen prestakuntza oinarrizko dimentsio bat da: zer ikasten den, nola eskuratzen diren ezagutzak, zein den lortzen den titulua, zer maila duten ikasketek, eta abar. Gizarte Langintzaren kasuan ere hala gertatzen da. Hortaz, Gizarte Langintzako heziketaren bilakaera historikoa ezagutzeak, prestakuntzaren nolakotasuna ulertzeko bidea eskaintzeaz gain, diziplinarekin eta lanbidearekin ere harremanetan jartzeko bideak irekitzen dizkigu.

Gizarte Langintzako heziketan practicumaren ikasgaiak betidanik leku berezia izan du, eta ikasketa-plan guztietan protagonismo nabarmena bereganatu du, ikasketen hasieratik gaurdaino, eremu geografiko orotan. Practicumaren ikasgaiak ezagutza teoriko-praktikoak ditu osagai, eta, ondorioz, ikasgai honen azterketa, Gizarte Langintzaren eremuan, ezagutza mota bakoitzak duen lekuaren eta balioespenaren adierazpide bilakatzen da.

Testuinguru honetan, beraz, tesi-lan honek Gizarte Langintzako heziketaren practicuma izan du aztergai, eta heziketan practicumak bereganatzen duen garrantziaren zioak eta dakartzan ondorioak ikerketa-objektu nagusi bilakatu dira. Ikergaiak, Gizarte Langintzaren ezagutza praktikoen eta ezagutza teorikoen azterketan murgildu gaitu. Halatan, eremuko eragileen diskurtso kolektiboan ezagutza tipo bakoitzaren inguruko balioespena aztertu dugu, bai eta honek guztiak Gizarte Langintzaren bilakaeran, egungo egoeran eta etorkizuneko garapenean duen eragina ere.

Zehazturiko helburua lortzeko kasu-azterketaren metodoa izan dugu ardatz, hau da, Gizarte Langintza heziketaren practicumaren inguruan dauden diskurtsoak kasu-azterketaren testuinguruan aztertu ditugu. Gasteizko Gizarte Langintza Eskola aukeratu dugu Gizarte Langintzako heziketaren practicumaren inguruko diskurtsoak behatzeko. Ikerlanaren atal teorikoan, bibliografiaren analisia ez ezik, dokumentuen azterlana ere egin dugu. Atal enpirikoan, eremuko eragileen diskurtsoetara heltzeko, bi teknika kualitatiboren konbinazioaz baliatu gara: eztabaidataldeak eta hiruko taldeak. Bestalde, azterketa teorikotik enpirikorako jauzia egiteko, Gizarte Langintzako heziketaren practicumean pertsona esanguratsuak elkarrizketatu ditugu. Horrenbestez, metodologia kualitatiboan oinarrituriko ikerlana burutu da.

Ikerketa hiru ataletan banatu da. Lehenengoan, Gizarte Langintzaren garapenaren analisiari helduz, lanbidearen sorrerarako eta bilakaerarako prestakuntzaren behar eztabaida ezinaren zioa arrazoitu dugu. Heziketaren garrantziaz jabetu ondoren, bigarren atalean, heziketaz beronetaz arduratu gara. Horretarako, Gizarte Langintzako heziketaren bilakaera jaso da. Bilakaera historikoa ikertzeak aukera eman digu *practicuma* ikasketa hauen elementu bereizgarria dela frogatzeko. Hori dela-eta, hirugarren atala, landa-lanaz baliatuz, heziketaren alderdi honetan sakontzera bideratu da; eta egiaztatu da Gizarte Langintza eremuko eragileen (irakasleen, ikasleen eta profesionalen) diskurtso kolektiboan handia dela *practicum* arekiko eta jardunarekiko atxikimendua.

Ondorioz, ezagutza praktikoak «garrantzitsuak» izatetik «garrantzitsuenak» izatera jauzi egiteak, ezagutza praktikoari dagokion balioa baino gehiago egozteak, mistifikaziozko norabideari heltzea ekar dezake. Hots, Gizarte Langintza jardute profesionalarekin parekatzea litzateke, gizarte-langileek egiten dutenarekin identifikatzea, diziplina lanbidera murriztea, alegia.